



228. zenbakia

APIRILA 2023

# pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria





**PASATU DUN OKERRENA**  
**– Mina hartzeko ere**  
**(Juan Luis Zabala. Susa - 2023)**

Lasaiago nagon,  
 pasatu dun okerrena,  
 edo hori pentsa zezakenagu behintzat,  
 latza izan dun baina etorriko ditun une hobeak,  
 joango gaitun berriz ere hortik zehar,  
 auskalo nora, auskalo zeren bila,  
 baina pozik handiena  
 elkarren ondoan gaudela sentituta,  
 begiak barrez, umetuta,  
 eta orduan ere tarteka  
 gogoratuko gaitun gertatu denaz,  
 sufritu dugun denarekin,  
 hartu dugun kolpe mordoarekin,  
 baina eguzkiari  
 geure gorputz barrura sartzen lagako zionagu,  
 eta berak nahi ez badu eskatu,  
 eta erregutu ere bai behar izanez gero,  
 alamena eman,  
 barrura eta barrura sar dadin,  
 ahal duen lekurik barrukoeneraino,  
 geu ere barru-barrutik eguzki bihurtu arte,  
 eta eguzki izango gaitun orduan une batez,  
 orain gezurra ematen badu ere,  
 hezurrak mela-mela eginda  
 laga dizkigun zaparrada beldurgarri honen ondoren.



# Hautatu



komunikazioa

**3** hedabide

Komunitate  
 Helburu  
 Proiektu  
 Hizkuntza  
 Eskualde

bera

Esan Erran Irratia  
 107.9 FM



pulunpe

amezti

## ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

### PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

### EMAILA

pulunpe@gmail.com

### ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Nabar, Denok bat elkarteak, Eduarne Gerendiain, Jule Goñi eta Laia Llop.

### KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

### TIRADA

1.700 ale

### INPRIMATEGIA

Gertu

### MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

### AZALEKO ARGAZKIA

Azaleko argazkiaren egilea:  
Itziar Mariezkurrena

### LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira apirilaren 4an bidalia

## AURKIBIDEA

04

**Gaurko gaia.** *Aralarko Gasbidea*

07

**Ingurumena.** *Elorri beltza*

08

**Euskara erreza.** *Etxea, Euskal Herrian*

10

**Kronika.** *Denok bat jubilatuen elkarteak*



12

**Albisteak.**

16

**Zer jan, hura izan.** *Laia Llop*

20

**Elkarrizketa sakona.** *Mimosa*

23

**Ardo Frexkoa.** *Euskara eskoletan*

24

**Aspaldiko Kontuak.** *Goio Urdanitz*

27

**Herrian bertan, zergatik ez.** *Olagueko ile- apaintzailea*

28

**Kirola.** *Basaburuko BTTa*

30

**Zer ikusi.** *Spoiler Alert*

32

**Zer irakurri.** *Ultzamako liburutegia*



## Bide judiziala amaituta, kalean gelditu nahi dute

Nedgya enpresak Aralarren gasbidea eraikitzeko proiektua aurkeztu zuen 2019an. Zati bat Aralarko Kontserbazio Bereziko Eremutik pasako litzateke, hau da, mendilerroko babes bereziko eremutik. Horregatik, Larraungo eta Arakilgo udalak kontra agertu dira eta enpresaren txostenak kalteak txikiagotzen dituela salatu dute. Herritarrek ere proiektua gelditzeko batu dira Aralar Zaindu Dezagun plataforman.

Gasbideak Aralarko mendilerroko Etxeberritik Lekunberriraino zeharkatuko zuen, Lekunberriko Albiasualdeindustriapoligonoraino gas naturala eramateko helburuarekin. Orain, likidotua eramaten dute kamioietan. Gasbideak 14 kilometro baino gehiagoko luzera izanen luke, Etxeberritik hasita, Oderitz, Astitz eta Allin barna. Horietatik 5,9 Aralarko Kontserbazio Bereziko Eremutik pasako lirakeke,

Larraungo eta Arakilgo udalek salatu dutenez. Horregatik, helegiteak aurkeztu dituzte, baina, azkenean, Espainiako Auzitegi Gorenak udalak proiektuari baimena eman diezaiotela behartu dituzte, proiektua balio publikokoa izendatu dela argudiatuta.

Oihana Olaberria, Arakilgo alkatea da: "Epaileak ez dira sakoneko gaietan sartu, azalean geratu dira. Prozedura administratiboa epaitu dute, ez proiektua bera.



**Oihana Olaberria,  
Aralarko alkatea:**

**Erabateko  
inkoherentzia  
da, batetik eremu  
bat babestu  
eta bestetik  
suntsitzeko  
baimena eman**



Komunikabideren batean, Lekunberriko alkatearen adierazpen batzuk irakurri ditut, Gorenak ontzat eman duela gasbidearen trazadua eta ekonomikoki eta inguruaren aldetik bideragarria dela esaten zuen. Bada, ez jauna, hau gezurra da, Gorenak ez du gure helegitea tramitera onartu. Ez da trazadua baloratzera sartu".

Bide judiziala amaituta, kontra agertu diren udalek eta herritarrek kalean gelditu nahi dute proiektua. Horregatik, hainbat mobilizazio deitu dituzte, azkena, martxoaren 25ean izan zen, Lekunberri. Haietan, Imozko hainbat herritarrek ere parte hartu dute, gertu duten mendilerroarekin kezkatuta.



Manifestazioa, Lekunberri





## Arakil eta Larraun, kontra

2020an, Arakilgo eta Larraungo udalek helegitea aurkeztu zuten Nafarroako Gobernuak gasbideari emandako baimenari. Oihana Olaberria, Arakilgo alkatea: "Babes bereziko eremu batean horrelako triskantza egitea ez dugu ulertzen. Nafar Gobernuak berak kudeatzen ditu eremu hauek eta natura eta bertan izaten diren prozesu ekologikoak babestea du helburu. Erabateko inkoherentzia da, batetik eremu bat babestu eta bestetik suntsitzeko baimena eman".

Helegiteak aurkezteko, Mikel Martínez de Zuazo ingeniariari txostena eskatu zioten. Enpresak kalteak izugarri txikiagotu dituela salatzen du, eta, aurkeztutako baldintzetan, proiektua ezin izango duela aurrera eraman. "Obrak hasteko baimena lortuko du. Eta, haiek hasi ahalko dituzte, baina hasi eta berehala, Aralarko eremu babestura iritsi orduko, ezin izango dituzte proiektuan aurkeztutako baldintzak bete eta obra gelditu beharko dute. Lanei ekitera

ausartuko al dira?", galdetzen du Martínez de Zuazok.


Mikel Martínez de Zuazo hamarkadetan askotan egin du lan Sakanan, Mankomunitatearendako hainbatetan, eta zonaldea oso ongi ezagutzen duela adierazi digu. Arakilgo eta Larraungo udalak txostena eskatu zioten, proiektuaren benetako kalteak neurtzeko. Oihana Olaberria, Arakilgo alkatea: "Udaletan aurkeztu ziguten proiektua lardaskeria bat zen. Inpaktu guztiak gaizki kalkulatu zaiden, baimen pila falta ziren. Arrazoi ekonomikoak ingurumenak baino pisu handiagoa dauka nedgyarendako eta Nafarroako gobernuarendako ere. Seguruenik, ez zuten bi udal txikiren kontrako jarrera espero eta ez zuten prozedura eta proiektua bera ere seriotasunez aurkeztu".

## 500 urteko zuhaitzen galera

Kalkulatu dituen kalteen artean, Martínez de Zuazok bereziki nabarmendu du ekarriko duen

zuhaitzen galera eta haren ondorioak. Enpresak aurkeztutako ingurumen inpaktuaren azterketan 12.247 m<sup>2</sup> -ko zuhaitzia galduko zen. Martínez de Zuazok 66.000 m<sup>2</sup> -etan neurtzen du azalera hori: "6.600 zuhaitz galduko ziren, kontuan izan gabe enborretan eta adarretan kalterik ez, baina sustraietan kalteak izango dituztenak. Batzuk, 500 urte baino gehiago dituzten haritzak eta pagoak dira", azaldu du bere txostenean. Eta horren ondorioak azaldu dizkigu elkarrizketan: "Aralarren izaten den euriarekin, eta txostenean azaltzen dudana bezala, gasbideak kaltetuko zuen eremuan dagoen aldaparekin, horrek lur jausiak ekarriko lituzke".

Gainera, Martínez de Zuazoren arabera, akuiferoak kutsatzeko arriskueta ere kalkulu okerrak aurkeztu dituzte enpresak Argilurri kontratatutako ingurumen inpaktu azterlanen. "Proiektuak oker kalkulatu du zeharkatzen den ahulezi ertain eta altuko akuiferoen eremuen luzera. 5.895,8 metroan neurtu du (hau da, ibilbidearen %41) eta, benetan, 12.189,2 metrokoa da (%85,6)".



Martínez de Zuazok Plazaolako bidea proposatu du bere txostenean ▲

**Gasbideak zeharkatuko lukeen azalareraen %85ean kutsatzeko arrisku ertain eta altuko akuiferoak daude Martínez de Zuazoren arabera**



## Plazaolako bidea

Aralarko bidean eragingo dituen kalteak azaltzeaz gain, Mikel Martinez de Zuazo ingeniariak beste aukera bat aztertu eta proposatzen du: gasbidea Plazaolatik eramatea. Txostenean adierazten duenez, Sakanako Mankomunitatea duela 50 urte Plazaolako bideko plataforma erabiltzen ari da Irurtzun eta inguruko hainbat herrigune urez hornitzeko. Ura eramateko bide horretatik gasbidea bideratzea posible litzatekeela uste du eta ingurumen inpaktoa gutxituko litzateke. "Hoditeria Plazaolako Bide Berdetik eramatea, Sakanako Mankomunitateko hoditeriak eramaten duen bide berberetik, posible da". Aukera hori gainera, askoz merkeagoa izanen litzateke, ingeniariaren ustez.

Nedgiaren proiektuak berak ere aztertu zituen lau bideen artean, bazegoen Plazaolako ere, baina hura baztertu eta Aralarkoarekin gelditu ziren, udalendako ulergaitza, txikiziorik handiena egingo duen bidea baita, beren ustez.

Nafarroako proiektu jasangaitzei erantzun juridiko-teknikoa ematen dien Sustrai Erakuntza Fundaziotik ere, enpresaren jokabidea zalantzan jartzen dute, baita honetan ere: "(Enpresak aurkeztutako) Bigarren aukeraren kasuan, proiektuan esaten zen trazaketak Plazaolako Bide Berdea jarraitzen zuela, baina hau ez da honela. Izan ere, alternatiba honek proposatzen zuen trazaketa hein handi batean Larraun ibaiaren eskuineko ertzetik zihoan eta Plazaolako bidea ezkerretik doa. Honek eragiten du alternatiba honen analisiak gastu ekonomiko

eta ingurune inpaktu handiagoak izatea, hau da, Plazaolaren bidea benetan jarraitzea aztertu izan balitz, edo Irurtzun eta Lekunberri elkartzan dituen NA 1300 errepidea jarraitu izan balitz baino gastu ekonomiko eta eragin handiagoak. Bi aukera hauek alternatiba honen ingurune-inpaktua gutxituko lukete, izan ere, espazio honetan dagoeneko azpiegiturak existitzen dira".

Hala ere, Sustrai Erakuntzatik "zero alternatiba" nahiago dute, hau da, ezer ez egitea eta Lekunberriko industria poligonoaren gas horniketara bere horretan uztea, kamioien bidez, orain arte bezala. Oihana Olaberriak ere aukera hori aipatu digu: "Beste hainbat aukera daude, ez egitearena adibidez. Lekunberriko industrigunean, gaur egun, gas likuatuarentzako biltegi erraldoi bat edo planta bat, egiten ari dira. Leitzatik datorren trazadua bera ere, behar bezala aztertu gabe dago".

## Mobilizazioak

Udalek bide judiziala egin bitartean, herritarrak Aralar Zaindu dezagun herri plataforman bildu ziren, proiektua aztertzeke eta herritarrak informatzeko. "Hasieratik ikusi genuen proiektua erabat suntsigarria dela. Alternatiben txostenak eskatu genizkienean argi geratu zen ez zutela alternatibarik aztertzeke asmorik", azaldu zuen plataformak, manifestaziora deitzeko prentsaurrekoan. Plataformako Izaro Garmendiak azaldu digunez, hain zuzen ere alternatibak aztertzea eskatzen diote Nafarroako Gobernuari: "Balio publikoko proiektua izendatzearekin, lanak edozein ingurumen babesaren gainetik jarri dituzte. Baina guretzako erabat suntsitzaileak dira, eta bestelako txostenak ere eskatu eta kontutan izan ditzala eskatzen diogu gobernuari".





## Lore txuri eta fruitu beltzez betetako zuhaixka

Garaiari lotutako naturako elementuren bat dakarkigu Edurne Gerendiainek hilero Esan Erran irratiko ingurumen atalera. Hilabete honetan, elorria izan dugu protagonista, izan ere, gure soroetan elorriaren lore zuriak ikusten hasiak gara dagoeneko. Edari gozoa egiteko fruitu txikiak ematen dizkigu elorri beltzak, gainera... badakizue zein?

Garai honetan hasten da elorria loratzen. Ultzamako inguru hauetan, batez ere soroetan eta erreka inguruetan topatuko ditugu zuhaixka hauek. "Arantzak dituen zuhaixka izendatzeko erabiltzen dugu elorri izena", azaldu zuen kolaborazioan Gerendiainek. Elorri zuria eta beltza bereizten ditugu inguruotan. Loratzen ikusi dugun lehena elorri beltza da, eta bere izenak ulertzera ematen duenaren kontra, lore zuriak ateratzen zaizkio.

Zergatik esaten zaio, orduan, elorri beltza? Bada, ematen dituen fruitu txikiak beltzak direlako. "Basaranak ematen ditu elorri beltzak, guk urri inguruan jasotzen ditugun horiek, patxarana egiteko". Elorri zuriak ere

ematen ditu fruituak, baina kasu honetan, gorriak izaten dira fruitu txiki horiek. Garai batean artzainek jaten omen zituzten horiek, horregatik deitzen diete zenbait tokitan 'manzanitas de pastor'.

### **Patxarana, antzinako edari sendagarri**

Elorri beltzaren fruituak patxarana egiteko darabiltzagu gaur egun, gure herrietako festetan falta ezin den edaria bihurtu baita patxarana. Antzinako garaian, ordea, sendagarri gisa erabiltzen zuten patxarana. Honela azaldu zuen Gerendiainek: "Garai batean, Blanca de Navarra erreginak patxarana hartzen zuela esaten da; baina, orduan, tripako minak eta gaitzak

“ **Nafarroako Blanca de Navarra erreginak patxarana hartzen omen zuen tripako mina arintzeko** ”

sendatzeko helburuarekin hartzen zen, eta ez mozkortzeko asmoz”.

### **Gure lorategietan pinu gutxiago eta elorri gehiago!**

Aldarrikapen horrekin amaituko dugu hilabete honetako ingurumen tarte. Zergatik? Bada, Gerendiainek azaldu zigunez, bai elorri zuria eta bai beltza oso egokiak dira soroak ixteko. Adarrez eta arantzez beteriko zuhaixkak izanik, abereak ez pasatzeko hesi lana askotan bete izan dute. "Bi aldeak ditu: batetik, hesi funtzio hori betetzen du, baina bestetik, intsektuentzat oso onak dira bere loreak, eta fruituak, berriz, hegaztientzat”.

Horregatik, gaur egun gure lorategiak eta soroak ixteko askotan pinuak eta antzeko hesiak erabiltzen badira ere, hona hemen proposamena: zaindu dezagun gure paisaia, mantendu ditzagun gure betiko zuhaixkak... lorategietan pinu gutxiago, eta elorri gehiago!





## Nola jartzen zaie etxeei Izena?

Pertsonok izena dugu. Txakurrek izena dute. Abere **kuttunek** ere izena dute. Lekuek izena dute (toponimoak). Eta etxeek? Etxea oso garrantzitsua da gure herrietan, eta **nortasun** berezia izan du euskal **jendartean**.

Etxea **bizitokia** baino gehiago izan da. Etxea bizitzaren **oinarri** eta **ardatza** zen. Horregatik, etxeak ere izena dauka. Etxeen izenak **agiri** ofizialetan **Erdi Arotik** agertzen dira.

### Nola sortu ziren etxeen izenak?

(Etxe izen hauek, **gehienak**, Basaburua eta Imozko herrietako izenak dira)

### Izen batzuek lekua, etxearen kokapena, deskribatzen dute. Toponimoak dira:

Errekaldea, Mendialdea, Iturralde, Oihanaldea, Muñoa, Elizondoa, Errekaondo, Oihanbidea, Bidegain, Elizaldea, Iriarte, Bidartea, Iribarnea, Irigoien, Beheitikoetxea/Behekoetxea, Azpikoetxea, Barrenetxea, Bengoetxea, Garaikoetxea, Goitikoetxea/Goikoetxea...

(Erreka: Regata, Iturri: Fuente, Oihana: Bosque, Iri (toponimian, pueblo)

### Beste izen batzuek etxea deskribatzen dute:

Etxeberria, Arretxea, Etxandi, Bordazahar, Etxetxikia, Etxezuria, Olaetxea, Bordaxuri, Etxahun...

(Harri: Piedra)

### Beste izen batzuek lanbidea adierazten dute:

Arotzarena/Arotzenea/Aroztegia, Zurgiñenea, Argiñarena/Argiñenea/Argindegia, Almirantearena, Apezarena/Apezenea/Apeztegia/Apezetxea, Okiñena, Zamargiñenea, Sastrerena, Zapatiñenea, Dendariarena, Barberena, Uztargilea...

(Arotza: Herrero, Zurgina: Carpintero, Argiña: Cantero, Okiña: Panadero, Zamargina: "peletero"? Zamarrak egiten dituen, Uztarri: Yugo...)

(-a)rena/(e)nea/(e)nia: (casa) del...)



Iturria, 'Orhipean, gure herria ezagutzen' liburua. Pamiela



## Beste batzuek, etxearen lehenengo jabearen izena edo izengoitia dute:

Perurena, Jurdanea, Martikorena, Maritorea/Maritonea, Martiñenea, Miltxonea, Errandonea, Joantorea, Perutzenea, Hankamotz, Matxinea, Mikeltonea, Antsonea, Petritxonea, Lopenea, Juankonea, Joansantzenea, Bernardonea...

(-a)rena/(e)nea/(e)nia: (casa) de...

Askotan, etxearen izena lehenengo **jabearen** erreferentzia da (bere izena, bere **lanbidea**, bere **jatorria**, bere **izengoitia**...). Eta gero, askotan, etxeak ematen dio **abizena**/izengoitia familiari.

Lehen **abizenak** ez ziren **finkoak**. "Iturralde" etxeko **semealaba** bat, adibidez, Martin edo Martina Iturralde izanen zen. Baina "Arretxea" etxera **ezkontzen** bazen, Martin/Martina Arretxe izanen zen gero.

Gero abizenak **finkatu** ziren betirako agirietan. Orain gurasoen abizena hartzen dute semealabek, ez etxearen izena edo herriarena.

Hala ere, gure herrietan askotan pertsonak bere etxearen izenarekin identifikatzen ditugu oraindik ere.

## Etxe izen famatu batzuk Euskal Herrian:

**Xalbador** (Fernando Aire). Urepeleko artzain, poeta eta bertsolari handiaren izena Fernando Aire zen. "Xalbador" bere etxearen izena zen.

**Axular** (Pedro Dagerre Azpilkueta). Urdazubikoa. Euskal letretako idazle handia. "Gero" liburu ederra idatzi zuen 1643 urtean, oso euskara **aberats** eta bizian. "Axular" etxean jaio zen.

**Xenpelar** (Juan Fernando Petriarena). XIX. mendeko bertsolari Gipuzkoarra. "Senperelarre" baserrikoa.

**Atano**. Gipuzkoar pilotariak (Mariano Juaristi eta bere ondorengoak), eta Donostiako frontoiaren izena. "Atano" baserrikoa.

Eta zuk, ezagutzen dituzu zure herriko etxeen izenak?

## Hiztegia

**Kuttuna:** Estimado, favorito

**Nortasun:** Personalidad

**Berezia:** Especial

**Jendartea, gizartea:** Sociedad

**Bizitokia:** Hogar

**Oinarri:** Base

**Ardatza:** Eje

**Agiri:** Documento

**Erdi Aroa:** Edad Media

**Gehienak:** La mayoría

**Sortu:** Crear

**Kokapena:** Ubicación.

**Adierazi:** Expresar

**Jabea:** Dueño

**Izengoitia:** Mote

**Lanbidea:** Oficio

**Jatorria:** Origen

**Abizena:** Apellido

**Finkoa:** Fijo, invariable

**Semealaba:** Hijo o hija

**Ezkondur:** Casar

**Finkatu:** Fijar

**Aberats:** Rico





### *Mus txapelketan, lehenengo aldiz, emakumeak txapeldunak*

Martxoaren 25ean amaitu zuten 49. mus txapelketa eta lehenengo aldiz bi emakumek osatutako bikoteak irabazi zuen: Rosa Goñi eta Socorro Serrano. Gainera, Logroñora egindako bidaia ere kontatu digute kolaborazio honetan Denok Bat elkarteko kideek.

Martxoko txangoa **Logroño** aldera egin genuen. Sarreran geldialdi txiki batean, kafetxo bat hartzeko beta izan genuen, gidarien laguntzaz hiri historikoa ikusi aurretik. Bi taldetan banatuta ibili ginen, bi gidariekin, Logroño aldea zaharreko kaleetan barna, bere eraikuntza nagusiak ikusiz eta han gertatutako istorioak entzunez.

El Laurel eta Portales karrika famatuek beren bizitasuna mantentzen dutela ziurtatu ondoren, bazkaltzera abiatu ginen

Fogon Rojas jatetxera. Ederki jan genuen. Handik pozik ateratzeak izan zuen bere ondorioa, itzulerako autobus bidaian kantuak ez baitziren falta izan.

Beste behin ere, elkarrekin egoteak ematen digun bizi pozaz, gozatu genuen.

Martxoaren 25ean **49. mus txapelketari** bukaera eman genion. Besteetan bezala, liga moduan jokatu zen eta azken egunean, bazkarian biltzen dira jokalaria, azken partida jokatu aurretik.



Bazkarian ▲



Logroño ▲





Hauek izan ziren sailkatutako lehen hiru bikoteak:

- 1.- Rosa Goñi – Socorro Serrano
- 2.- Nicolas Iragui – Martin Zalba
- 3.- Agustin Ciganda – Santiago Iraizoz

Aurtengoan, txapelak jartzerakoan txalo zaparrada entzun zen, denok ospatu baikeuen, lehen aldiz txapeldunak emakumezkoak izatea. Zorionak beraiei eta eskerrik asko parte hartzaile guziei.

Apirilerako badauzkagu hainbat ekintza prestatuak: 22an udaberriko festa ospatuko dugu; bidaiak, Kantabriara Arkupeakoekin eta Extremadurara gure kabuz.

Bestalde, ekainerako Portugal aldera joateko asmoa dugu, eta horretara norke joan nahi duen galdera zabaldua dugu. Ea nahikoa jende apuntatzen den. Horien guztien eta beste batzuen berri emanen dizuegu datorren alean. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



 **Denok Bat  
Jubilatuak Elkartea**



▲ Sarituak



## *Ilarregiko Judith Torrea kazetaria, Nafarroako Gobernuak Carlos III. Gurutzeekin saritutako herritarren artean*

Kazetari ultzamarrak urteak daramatza Mexikoko Ciudad Juárez hirian lanean. Feminizidioak, narkotrafikoaren eragina eta beste zenbait gai sakonean landu ditu Torreak bere kazetaritza lanetan. Nafarroako Gobernuak urtero antolatzen dituen Carlos III. Gurutzearekin omendutako zazpi pertsonetako bat izan da kazetaria. Lehenagotik ere jaso izan ditu sariak kazetariak; esaterako, 2010ean Ciudad Juárez, en la sombra del narcotráfico blogagatik Ortega y Gasset saria jaso zuen.

Martxoaren 27an egin zuten Carlos III. sarien banaketa, eta ultzamarrak gain, Vicente Madoz psikiatra, Oihan

Iturbide Aranzadi Fundazioko zuzendaria, Alfredo Sanzol antzerkigile eta zuzendaria, Antonio Eslava grabatzailea, Iñaki Perurena harri-jasotzailea eta Patxuka de Miguel emaginak jaso zituzten gurutzeak. Kazetaritzarekiko bere konpromisoa nabarmendu zuen Maria Chivite lehendakariak hitzartzean, eta baita "gizarte maila erosoetatik egoera bidegabeak eta biktimak ahaztu ez ditzagun" ahalbidetzea.

Ultzamarrak, bere hitzartzean, bere helburua ahotsa kendu izan zaien pertsona horiei ahotsa itzultzea dela adierazi zuen. Saria jaso biharamunean, berriz, Katakarak liburudendan hitzaldia eskaini zuen kazetariak, eta jendetza hurbildu zen bertara.



Judith Torrea Ilarregiko kazetaria, goiko lerroan erdian ▲



Izen-ematea:  
apirilaren 24tik maiatzaren 5era

# Euskaraz eta hemen!



Erizaintzako Zainketa Lagungarriak



Natura Inguruneko eta Aisialdiko Gidaria



Mekanizazioa



Administrazio Kudeaketa



Administrazioa eta Finantzak

Erdi  
mailako  
zikloak

Goi  
mailako  
zikloa

Info.+



848 43 16 32

[www.cipelizondoip.web.educacion.navarra.es](http://www.cipelizondoip.web.educacion.navarra.es)



**Angel Erro  
Berria**

## Atzerritarrek gure

2023ko martxoak 29

TikToken agertu zait Pimplaplona izeneko mutil gazte bat, marokoarra jatorriz, Iruñerriko azentu kutsatuaz Iruñeko topikoen gainean bideoak egiten dituen. Kaixo eta agur hitzak erraz darabiltza. Kale elkarrizketak ere egiten ditu, gautarrak, TikToken modan denez.

Berehala egiaztatu dut nik baino gehiago dakiela Iruñerrian zer ekoizten den. Orkoienei buruzko tribuen inguruan ez dut ia ja ulertu, normala denez. Halere, seguruenik niri autoritate handiagoa aitortuko zitzaidan bertako kontuez aritzekotenorean, beraribaino. Haususmoa besterik ez da; berdin da atzerritarrek, batzuk bigarren belaunaldikoek, zenbat denbora daramaten gurean (gurean?, zer da gure?), joera izanen dugu bertaratu ez direla pentsatzera, toki batera egokitze modu bakarra (orain bai, gurea) dugulako buruan.

Hobe genuke hala ez dela lehenbailehen ikasiko bagenu. Eskoziak Humza Yousaf izeneko lehen ministro bat du orain. «Pakistandar baten semeak eramanen gaitu independentziara?», irakurri dut harridura eta burlaren arteko tonuan. Zergatik ez? Aurreiritziek bai ez garamatzatela inora. Nicola Sturgeon ordezkatzeko beste hautagaia, esaterako, emakume gazte zuria, ezkontza homosexualen aurka zegoen, hautagai musulmana ez bezala.

## *Etxebizitza eraikitze lursailak salgai, Beramendin*



*Irudian ikusi dezakezue Beramendin salgai dauden lursailen kokapena* ▲

Udabe eta Beramendiko kontzejuak bultzatuta, urbanizatzeko lau lursail atera dituzte salmentan. VPO eta VPT unifamiliarak eraikitze lursailak dira eta eskaerak egiteko epea apirilaren 21ean bukatuko da.

## *Landa eremuan proiektu berriak sustatzeko jarduera*

Jauntsaratsen, Basaburuan, izaten ari da eta hainbat hitzorduetan banatu da, martxotik apirilera. Komunal proiektuaren bigarren edizioan kokatzen den ekimena da eta, bertako eragile eta herritarrak bilduz, aukerak identifikatu nahi ditu proiektu berriak eta ekintzailatza sustatzeko. Nafarroako hainbat herritan egin da, eta, orain, Basaburua aukeratu dute.

Lehenengo saioa, martxoaren 27an izan zen. Saio ireki batean Basaburuko hainbat erakunde, herritar, eta proiektuak bultzatu dituzten pertsonak bildu ziren. Eskualdeko ahuleziak, beharrak eta aukerak identifikatzen saiatu ziren, bi taldetan banatuta. Apirilean bi saio gehiago egingen dituzte, apirilaren 11n eta 18an. Aurrekoen eta horien guztien helburua, proiektu berrietan gauzatu daitezkeen prototipoak edo ideiak proposatzea da.





## Errugbi gaupasa izanen da Larraintzarren, maiatzaren 13an

Hemeretzigarren edizio honetan, berritasunik handiena izanen da errugbi lehiaketak izanen direla. Euskal Herriko hainbat talde gonbidatu baitituzte adin guztietarako lehiaketa hauetan parte hartu dezaten. Txapelketak arratsaldean izanen dira eta, ondoren, kontzertuei bide egingen zaie. Afariari dagokionez, aurten joan den urtean bezala, zikiro afariaren ordez, bokata jatea antolatuko da.


Bertzalde, errugbi gaupasako zozketa martxan da. Hainbat sari daude, hala nola, senegalerako

bidaia bi pertsonarendako, egurra xehatzeko makina, bizikleta elektrikoa, Baztango aratxea eta zonaldeko produktuen bi saski. Boletoak erosteko taldearekin edo jokalariren batekin jarri kontaktuan.

Jakina denez, BRT Menditarrak errugbi taldeak haien jarduna finantzatzeko gaupasa antolatzen dute urtero. Izurritearen geldialdiaren ondoren, hau bigarren edizioa izanen da, pasa den urtekoaren ondoren. Oraindik ez dugu ezagutzen kontzertuen kartela, baina, urtero bezala, ziur giro ederra izanen dela.



Errugbi gaupasako zozketa ▲



**Carrefour**  
*express*

*Zugandik gertuago*

**ASTELEHENETIK OSTIRALERA**

**9'00 - 20'00**

**LARUNBATA ETA IGANDEA**

**9'00-14'00 / 16'00 -20'00**

**¡Zure zain  
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8

31867 Aroztegi - Atezko Ibarra

IZARPE KANPINA



CAMPING - KANPINA

**IZARPE**

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



# Elikadura

## osasuntsua

### Janaria, behar dugun energia

Dietaren inguruan dugun kontzeptua berrikustera animatzen gaitu Laia Llopek bere kolaborazio honetan. Pisuari erreparatzera zuzentzen gaituzte, baina erre beharreko zerbait bezala ikusi beharrean, janaria gure energia dela gogorarazi digu Llopek, gorputzak eta buruak egin beharreko prozesuetarako beharrezkoa.

Osasunarekin baino gehiago, pisuarekin eta estetikarekin lotu ohi dugu dieta. Baina janariak eta elikadurak gure gorputza osatuko duen eta beharrezkoak ditugun elementuak ematen dizkigu. Laia Llop: "Jakien etiketetan kaloriak jartzen ditu eta horiek neurtzen ditugu jaten dugunean. Ariketa fisikoarekin gauza bera egiten dugu, zenbat kalaria erre ditzakegun begiraten dugu. Hori ikuspuntu arraroa da. Imajinatu gasolindegira zoazela eta energia gutxien ematen duen gasolina eskatzen duzula, edo, zein bide hartu dezakegun ahalik eta gasolina gehien erretzeko.

Kontraesana da. Janariak gure gorputza osatuko duten elementuak ematen dizkigu. Jaten dugunak gure gorputza osatuko du, gure gorputzaren parte izanen da: gure ormonak, gure odola, gure hezurak eta energia. Zenbat energia ematen duen eta nola erre dezakedan energia hori, horri bakarrik begiratzea erokeria da".

#### Dieta, terapeutikoa bada bakarrik

Llopen iritziz, dietak beharrezkoak dira, baina, soilik, arazo bat konpontzeko bideratzen badira: "Beste kontu bat da dieta terapeutiko bat egitea, desoreka

bat duzulako gorputzean eta hori erregulatu nahi duzulako. Dieta, zer komeni zaigun begiratzea ongi dago. Baina, orokorrean, dietaren kontzeptua eta elikadura bera beste modu batean hartzea gustatuko litzaidake, eta ez ikustea erre beharreko zerbaiten gisara".

Norbere gorputza eta ezaugarriak ezberdinak izan daitezke, baina badira orokorrean onuragarriak diren jakiak: "Badakigu janari prozesatuak edo ultraprozesatuak kaltegarriak direla, eta, era berean, dituzten osagaiak ezagutzen ez ditugun jakiak edo zenbakiz eta letraz osatutako



Kaloriak. Moldatutako argazkia. Iturria, flickr.com. Pablo César Pérez González. ▲





osagaiak dituztenak. Eta, kontrara, onuragarriak dira elikagai naturalak eta osoak, osagai naturalak dituztenak. Horien alde egiten baduzu, oreka bat dago zure elikaduran. Elikagai natural horietan ez da beharrezkoa jakitea zenbat kaloria duten (barreak)”.

### Nola eta noiz jan, hura izan

Eta jaten dugunarekin batera, oso inportantea da nola jaten dugun eta noiz jaten dugun ere begiratzea: “Ongi murtxikatzen dugun begiratzea, arreta jartzen dugu jaten dugunean... Eta, noiz? Gose izan gabe ere jaten dugu? Edo, ohituragatik? Beteta nago baina postre bat ekartzen dute, eta sartzen zait? Hiru edo bost aldiz jan behar al dugu? Zergatik jaten dugu hainbeste aldiz? Digestio-sistema oraindik beteta dugu eta jaten jarraitzen dugu? Hori ere inportantea da”.

Digestioari kasu gehiago egitea gomendatu digu Llopek, jan eta berehala lotara ez joatea, adibidez: “Hor beste prozesu bat behar du gorputzak. Martxan egon behar gara digestioa egiteko. Garrantzitsua ez da bakarrik zein osagai jaten ditugun, beste guztia ere elikaduraren parte da”.

Eta, aurreko kolaborazioetan aipatu bezala, nola jaten dugun ere begiratzea da gakoa: “Antsietaarekin jaten al dugu?” Kezkatuta nago eta hori kudeatu ordez jaten al dut? Bada, ez jarri beste lan bat gorputzari, digestioa ez baita doako prozesu bat gorputzarendako, arrastoa uzten duen lana da, eta hori kudeatu behar da. Energia hartuko du, pentsatzeko edo sortzeko beharko genuen energia hori hartuko du. Ez da behar gure energia denbora guztian digestioan jartzea, eta bost aldiz jaten baldin badugu energia asko behar dugu horretarako.

### Hilabete honetako errezeta

Udaberriaren sarrerarako prestatzeko errezeta.

- Neguaren bukaeran onak diren sustraiak, azenarioak, batata etab. labean erre eta espinakekin nahastuko ditugu.
- Espinakak edo zerbak izan daitezke, orokorrean hostoak dituzten jakiak, udaberrira begirakoak izaten dira. Horiek, gordinik, erretako barazkiekin nahastu eta zanpatu. Ondoren, irinarekin nahastu: bi katilu barazki eta bi katilu irin (arroz irina edo olo irina, adibidez), eta horiek bi arrautza goringorekin nahastu. Hori guztia ongi nahastu eta gazta pixka bat gehitu, ardi gazta pixka bat. Horrekin guztiarekin masa moduko bat egin eta hozkailuan gorde.
- Masa horrekin bolatxoak egingo ditugu, olio pixka bat bota gainean eta frijitu ordez, labean egingo ditugu.



### Baraua

Errezetaren ordez baraua gomendatzea pentsatu duela onartu digu Llopek: “Deskantsu bat uztea digestio-sistemari, energia asko eskatzen duelako. Azukrea edo karbono-hidratoak izaten dira gure erregai nagusia, ordu batzuk jan gabe egiten baditugu, gorputza beste erregai bat hartzen hasiko da, eta hori komenigarria da. Aukera gehiago izatea, beste erregai batekin funtzionatzea eta ez beti glukosarekin. Buruarendako ere oso ona izaten da”.





Atezko ihoteak izan ziren martxoaren 4an



Atezko ihoteak



Doris Schneider Mendia eta Edwige bere adiskidea



Ezk-esk. Amalur (Eritzekoa), Maier (Aizarozkoa) eta Ortzi (Eritzekoa)



Emakume langilearen nazioarteko eguna ospatzeko bazkaria, Larraintzarren. Martxoaren 18.





Atezko ihoteak

# Zorionak Zorionak !

Zorionak Maren !!



Zorionak Oinatz  
eta Maddi!!



Zoriondu zure laguna  
Pulunpen!  
[pulunpe@gmail.com](mailto:pulunpe@gmail.com)



Atezko ihoteak



Artzeki taldea





## Ikuspegi feminista eta zaintzak oinarri dituen management proiektua

Beramendiko Kata Marta eta Nerea Loron "La Furiak" elkarlanean abiatutako proiektua da Mimosa bulegoa. Artistei haien ibilbide profesionalean laguntzea eta kultura feminista sustatzea dira proiektuaren helburuetako batzuk, eta lanketa guzti horretan zaintzak erdigunean jartzeak egiten ditu berezi. Kata Martarekin proiektuaz izandako elkarrizketa dakarkigu orrialdeotan

### Zer da zehazki Mimosa proiektua?

Ez da azaltzen erraza, baina, tira, gutxi gorabehera esan daiteke Mimosa bulegoa artista feministei haien ibilbide profesionalean laguntzen dien proiektua dela. Artea eta kultura feminista bultzatzen ditugu bulegotik, sortze prozesuak lagunduz eta balioetsiz, eta betiere ikuspegi feministarekin eta LGBTQ+ ikuspegiarekin. Mimoa ere bada Mimosa: artea zaintzeko eta kultura elikatzeko baliatzen dugu proiektua, artisten bizitzen zaintza ere eginez.

### Hortik dator izena, beraz?

Lekudesberdinetatik sortudaizena. Batetik, landare bat da mimosa, eta guretzat lurrarekin lotura oso garrantzitsua da. Gainera, mimosa ez da landare konformista bat, ez da apaingarri hutsa, tenperatura baxuak eta idortea jasaten ditu, neguan loratzen da... oso landare gogorra da, adiskidetasuna eta samurtasuna irudikatzen ditu guretzat, eta bere hautsak, gainera, zauriak orbaintzen laguntzen du. Zaintzak erdian jartzeko modu bat ere bada izena. Artisten



**Prozesu guztietan mimoa jartzea iraultzailea da guretzat**



mundua oso mundu itogarria da, eta emakumeek orain arte ez dute lekurik izan bertan. Prozesu guztietan eta eskenatokietan mimoa jartzea iraultzailea da guretzat.

### Zer hutsune betetzeko asmoz sortu zenuten proiektua?

Furia bere aldetik hasi zen kontzertuak eta ekimenak antolatzen, eta ni, duela hogeit bat urte argi teknikari gisa aritu nintzen lanean, eta gerora kontzertuak antolatzen eta ekoizpenak egiten. Bakoitzak bere aldetik hutsune desberdinak ikusi genituen, eta duela urte batzuk Bilbon elkartu ginen, emakumeen eta musika industriaren inguruko hitzaldi batean. Handik sutan atera ginen, eta konturatu ginen gure ikuspuntuak oso antzekoak zirela. Gauzei mimoa jartzea ezinbesteko dela sentitzen dugu, eta puntu horretan elkartu gara, ikusten baitugu eguneroko errutina eta dinamiketan azkar ahazten dela



Beramendin bizi da Mimosa proiektuko kide den Kata Marta



mimoa jartzeaz. Horrek batzen gaitu, prozesu sentibera horietan mimoak ahazten ez uzteak.

**Musikaren munduak oso maskulinizatua egoten jarraitzen duela diozue. Zertan sumatzen da eredu horren gailentasuna?**

Gauza askotan suma daiteke, adibidez, festibaletako karteletan. Nahiz eta festibal askok diru publikoa jasotzen duten, ez dituzte parekotasun baldintzak betetzen, hurbildu ere ez dira egiten horretara. Historikoki, eta kultura ikuspegitik, emakumeen gaitasuna naturarekin lotu izan da, eta horregatik normalizatu dugu emakumeak abeslariak izatea. Baina musikari izateko ikasi egin beharra dago, teknika bat eraiki, eta hori ez da naturarekin lotzen, kulturarekin baizik. Hor dago koska. Eta, horretaz aparte, teknikarien kasuan ere asko nabaritzen da, edo managerren munduan: oso emakume gutxi ari dira horretan. Backlinerren kasuan, adibidez –eskenatoki ondoan egoten diren artisten laguntzaileak dira backlinerrak–, ez dago emakumerik. Argi dugu bide luzea dugula egiteko, baina behintzat bidean gaude, eta horregatik sortu da Mimosa.

**Zaintzei garrantzia berezia ematen diezue zuen bulegoan, ezta? Horretan desberdintzen da batik bat Mimosa gainontzeko management egitasmoetatik?**

Desberdintasun handiena da ikuspegi feministarekin egiten dugula lan, baina hau ez da diskurtso aldetik soilik. Ez da guk diogula feministak garela eta kito. Ez, benetan hau gure egiteko moduan islatzen da, beste lekuetan zaintzen ez diren gauzak zaintzen ditugu. Eta, gainera, ezin da ahaztu bulego bakarra garela gure artisten edukiak ere feministak direnak.

**Lehenagotik lanean ari bazineten ere, otsailaren 16an egin zenuten aurkezpen festa ofiziala Bilbon. Zer moduz joan zen?**

Gau oso polita eta berezia izan zen. Ni oso urduri nengoen, azkenean, proiektu berri bat aurkeztean munduari esaten ari baitzara hau egia dela, gertatzen ari dela, eta ni horren parte naizela. Oso hunkigarria izan zen. Bilboko Bira aretoan egin genuen aurkezpena, lagun mordoxka elkartu ginen bertan, eta kuxkuxeroak ere hurbildu ziren. Mimosa loreekin bete genuen gunea, mimosa koktelak ere egin genituen... Gogoratzeko moduko gaua izan zen!

“

**Oso emakume gutxi ari da teknikari edo backliner moduan lanean**

”

*Indarra transmititzen lorea da Mimosa*





## Irantzu Varela'ren 'Señoricidio' bakarrizketa

Otsaileko aurkezpen ofizialaren ondoren, beste hitzordu garrantzitsu bat ere izan dute Mimosako kideek Nafarroan. Izan ere, martxoaren 10ean, Iruñeko Zentral aretoan Irantzu Varela'ren 'Señoricidio' bakarrizketa estreinatu zuten, bulegoa ezagutzera emateko aukera ederra eman ziena. Jende asko hurbildu zen bizkaitarraren lehen bakarrizketaz gozatzer



## Mimosa bulegoarekin lanean ari diren artistak

### Euskal Herrikoak:

• **La Furia:** Nerea Loron Mimosako sortzaileetako baten musika proiektua, rap feminista Nafarroako erriberatik

• **Irantzu Varela:** kazetari eta militante feminista bizkaitarra, hitzaldiak ematen urteak daramatza, eta bakarrizketa bat estreinatu berri du orain

• **Albina eta Divina Comedia:** Iruñeko drag artista da Albina Stardust, musikari ari d i r a , Divinarekin tailerrak ematen dituzte, eta DJ seta ere badute festak alaitzeko

• **Ekiñe:** Arrasateko kantautore gaztea

### Nazioartekoak:

• **Rebeca Lane:** Guatemalako kantaria, bere herrialdeko memoria historikoaren inguruan lan handia egiten ari dena. Musikari antiarrazista, anticolonialista eta feminista

• **Elisa Coll eta Irene Collado:** madrildarra bata, katalana bestea. Late night show-a egiten dute bien artean, umore bidez bisexualitateaz hitz eginez. Elisa Coll-ek, bere aldetik, Resistencia bisexual bere liburuaren hitzaldi eta aurkezpenak ere egiten ditu

Irantzu Varela'ren bakarrizketaren aurkezpena Iruñeko Zentralen





## Hemengo eskoletan bada D eredurik?

Nafarroako Cortesen aita batek erdietsi zuena, hau da, bere umeak euskaraz ederki ikastea, ez al da lorgarri hemen?

“Ahalegin **berezirik(sic)** egin gabe” jarri nuen azkeneko Pulunpen. Gainera beltzez eta (sic) horrekin jarri banuen ere, jakina, ahalegina behar dela, jakina!

Zer behar dugu horretarako: lehenik eta behin, etxean gurasoa haurren gainetik izatea, eta ez aldrebes. Dena dela, ez dut kontu honetan gaur behintzat deus gehiago esanen. Beste arazo bat aipatuko dut, ez gurasoena, eskolena baizik.

Eskoletan ikusten ari garena larria baino larriagoa da. Haurrak ez dute euskararik ikasten. Ez denetan, baina gure alderdiko eskoletan euskara gainbehera ziztu bizian amiltzera doa. Azken urteetan gertatzen ari dena ikaragarria da, izugarria, beldurgarria, lotsagarria. Badira haurrak euskaraz ulertu ere egiten ez dutenak. Nik ikusia,



▲ Iruñean agerraldia. Mañerun euskarazko lerroa irekitzearen aldeko aldarria aurtengo neguan.

probatua eta ziurtatua: hamar urteko haurrak ulertzen ez, euskaraz egin eta ulertzen ez. Amildegian ditugu hainbat haur.

### Zergatik?

#### Lehen aitzakia:

Orain hamabost bat urte, euskararen ezagutza gure eskoletan behera egiten hasi zenean, entzun izan nion irakasle bati baino gehiagori: “eskolarekin bakarrik ez daiteke euskara aurrera atera” Hori lehen ere bagenekien, baina gazte asko ateratzen zen euskaraz ongi samar mintzatzen ikasirik.

#### Bigarren aitzakia:

Orain bost bat urte entzun nion irakasle berari: “gaurko gurasoek ez dira lehengoak bezalakoak. Herriko eskolara bidaltzen dituzte hurbilena dutelako, ez euskara inporta zaielako. Hori da orain euskara ikastea zailagoa egiten duena” Dena dela, badira eskolak eta eskolak. Batzuetan orain ere franko ongi ikasten dute. Zergatik batzuetan bai eta beste batzuetan ez? Erantzuna beharko luke honek.

#### Hirugarren aitzakia:

Eta orain, azken argumentua, aurten berean entzun diodana guraso bati; eta irakasle bati ere bai: “haurrak ez du euskaraz ari nahi”

Jakina. Euskaraz ez dutela ari nahi? Jakina. Lehen ere ez. Gaztelera gainean dagoen hizkuntza denean eta azpian dagoena euskara, telebistako hizkuntza erdara denean nola nahiko du euskaraz ari? Edo karrikako hizkuntza erdara denean nola nahiko du euskaraz ari? “haurrak ez du...” argudio horrek ere ez dit batere balio. Lehen ere ez zuten ari nahi.

Eta bukatzeko, aitzakiak utzi

beharko ditugu, sakonean dagoena ikusi, aztertu eta aldatu behar dena, aldatu. Denean dugu erosio handi bat, askotan ari gara gauzak oker egiten, gizarte, guraso eta eskoletan adibidez. Eta zer esan gure gidari politikoez? Gure Administrazioaz eta bere hizkuntza politikaz? Horretaz, gaurkoz, isiltzea hobea!

### Dena dela, zergatik ari da erortzen euskara inon baino gehiago gure eskoletan?

Hainen zaila al da horri erantzuna ematea? Egiazko erantzun bat ematea? Hemengo irakasle bati ere ez diot entzun benetako erantzun bat, goiti aipatu ditudan sofisma horiez landa.

Ardo ozpindu asko saldu da ardo frexko bikaina bailitz bezala, eta askok erosi dute gainera. Askok, eskoletan ere bai. Eskoletan inon baino gehiago.

 **Txurdan**

#### Hiztegia

**Enasa:** utzia, zikina.

**Lotsagarria:** Bi adiera ditu hitz honek. Bigarren adiera zerbait beldurgarria baino gehiago denean ibiltzen da. Hiztegiak Iparraldeko adiera dela esaten du, baina nik zaharrei mila aldiz entzuna da eta ibiltzea atsegin dudana. Erdaraz espantoso edo izanien litzateke.

**Aztertu:** investigar

**Erosioa:** ahuldu, gastatu, pobretu (azkenean, hil)

**Sofisma:** egia itxurako arrazoibide faltsua.



# Seminarista, pilotari profesionala, soziologoa (II)

## Goio Urdanitz, Aritzuko semea.

Aurreko zenbakian Goioen haurtzaroz aritu ginen. Eta Seminarioko aldiaz. Biak ere nahiko emankorrak gertatu zitzaizkion Goiori.

### Seminarioko aldia bukatu zen. Eta zuk Bilbora joatea erabaki zenuen. Nola hori?

Ez dakit zergatik, baina beti izan nuen gizarte gaiez jakin mina; edo nola funtzionatzen zuen gizarteak ikasteko nahia. Orduan esaten zidaten erotua nengoela. Edo arraroa nintzela.

Eta han eta hemen irakurriz, ikasi nuen Frantzian, Belgikan eta beste toki batzuetan Unibertsitateko

karrera zela, Soziologia. Eta Aste Santuan beste lagun batekin joan nintzen Bilbora ikastera nola zen Deustuko Unibertsitate pribatuan (Orduan ez zen publikorik)

Deustuko Unibertsitatea zen Espainia osoan karrera hori ematen zuena; bakarra zen eta hasi berri samarra, lau urte besterik ez baitzuen hasi zela. Eta horrela erabaki genuen, bost lagunek, Deustura joatea. Laurok soziologia eta bosgarrenak Ekonomia.

### Unibertsitate garestia Deustukoa.

Bai, matrikula garestia zen eta gero asignatura bakoitzeko kuota bat. Eta denok joan ginen uda hartan irabazitakoarekin, han eta hemen lanean. Lehen lauhilabetekoa ordaindu genuen eta bekak eskatu genituen hurrengorako. Hori bai, asignatura guziak gainditu beharra izaten zen beka izateko.

### Gastu horretaz aparte, bizi ere egin behar zen.

Elkarrekin pisu batean jarri ginen bizitzen. Kaxa komuna egin genuen. Eta, jakina, pisua orain baino askoz ere merkeago izan arren guretzat dirua zen. Eta horretarako lanean aritzen ginen, tailerretan, kamioiak deskargatzen, barkuak... ahal zen tokian eta ahal zen bezala, herritarrek ginen gu. Eta udako oporretan ere bai, ahal zen tokian, batzuk Frantzian... ahal zen tokian. Gainera denok ere familia xumekoak ginen eta elkar hartu eta hitz eman genuen gure kargu biziko ginela, ez etxekoen bizkar.

**1969ko urriaren 1ean joan zen Deustura ikasketak egitera uda hartan herrian goratu zuten behitegi bateko obretan irabazitako 6.000 pezetarekin. Handik aurrera, ahal bezala, lanean.**

### Deustuko ikaskideak familia aberatsekoak izanen ziren.

Aberatsekoak ez dakit, baina gure familiekin konparatuz, anitzez ere puxantagoak.



*Hemeretzi urtetan egin zuen debuta.  
Zimela, baina nolako beso tzarrak!*





## PILOTA PROFESIONALERAKO HASIERA ETA IBILBIDEA

### Zu 18 urtetan Arraizko bestetan hoberekin aritu zinen pilotan. Zu ikaslea ez ezik, pilotaria ere bazinen

Ja, ja, pilotaria, bai, baina ordurako atzendua ere banuen nire afizioa. Baina, beti gelditzen da zerbait; Bilbora iristean, jakin genuen pilotaleku inportante bat bazela Bilbon, non pala luzean aritzen ziren, Club Deportivo de Bilbao. Eta garai haietan pilotaleku inportante horietan pilota eskola izaten zen. Eta ni, egun batez joan nintzen pilotalekura eskola horretaz galdezka. Eta hango entrenatzaileak esan zidan: zatoz bihar, zuriz jantzia eta pala luzearekin. Pilotak eta gainerakoak utziko dizkizugu.

### Eta zuk jantzi zuriak eta pala erosi eta Deportivora, ja, ja!

Bai, bai, hala egin nuen. Pilotan ahal nuen bezala aritu nintzen eta, harrigarriki, esan zidaten gora joateko fitxa betetzera eta horrela izan zen. Federazioan sartu, eta Deportivon pala luzeko pilotari izateko ikasten.

### Eta pilotari profesionala laster? Pala luzea oso zaila dela entzun izan dut beti.

Bai, hala da, pala luzea da motarik zailena. Eta urtebete baino lehen profesioaletara egin nuen salto. Orduan barkuak, kamioiak eta denak utzi eta pilotan hasi nintzen bizitzeko behar onena ateratzen.

### Debutatu zenuenean zer pentsatu zenuen? Goiko mailara igotzeko ametsik?

Ez dut uste. Orduan han zen maila ikusita, zu zeroi, hogeituro mutil koskorra, mehea, ahula... Baina bai, pilotari sentitzen nintzen, pilotan

banuen artea, oso pilotaria nintzen eta pentsatu nuen: ez zekiat noraino baino bizia ateratzeko adina bai, hemen aterako diat bizitzeko dirua.

### Ezagutuko zenituen Begoñes, Iturri eta idolo handi horiek.

Bai, bai, eta jokatu horiekin ere bai. Nik ezagutu nuen belaunaldi zaharragoa, pilotari famatuez osatua: Begoñes VII, Alsua, Murgia II, Zarandona, Aguirrebengoa, Oroz III... eta berriagoak ere bai, Iturri eta abar. Iturriekin partida anitz jokatu nuen. Nire azken partida Iturriekin jokatu nuen, Gasteizen.

Ni hamar urtez izan nintzen profesionala.

*Baina zoritxarrez, frankotan gertatzen den bezala, lesio larri bat izan zuen Urdanitzek eta urtebete egin zuen ari gabe eta enpresaz aldatzea tokatu zitzaion. Bilbo utzi eta Donostiara.*



▲ Iturri handiarekin bikote 7879ko Eguberritan.

### Lesio larri bat izan zenuen eta aldatu beharra etorri zitzaizun. Aldaketa handia?

Aldaketa handi samarra. Bilbo utzi eta Donostiara joan nintzen, Deportivo utzi eta Carmelo Balda pilotalekuan kontratua firmatu nuen. Carmelo Balda-ren inaugurazioan hor nintzen ni, 1973ko martxoaren 17an izan zen. Eta hor aritu nintzen pilotan lau edo bost urtez, lesio denborak barne. Eta lesio larri bat izan eta utzi beharra izan nuen betiko. Nahiko gazte, 30 urte bete berriak baintuen. Lesioek eragin handia izan zuten nire ibilbidean eta azken urteetan ez nuen berritan bezala jokatzeko. Zoritxarrez utzi beharra izan nuen.

### Zure pilota ibilbideaz hitz egin dugu. Zer ezaugarri zenituen pilotari bezala?

Pilotari elegantea nintzela esaten zidaten, postuz-eta klasikoa, pilota oso ongi sartzen nuen palan eta golpe zehatzekoa nintzen. Pilotari klasikoa, eta garai hartan Bilbon eta Donostian hori oso atsegin zuten. Bilbon enpresari batek hala esan omen zuen: pilotari elegante bati kontratua firma dakioke itsusi bati baino lehen, nahiz erdia ez jokatu.

### Txurdan

- **Hiztegia**
- **Gizartea:** Sociedad
- **Familia xumea:** familia humilde
- **Ikaskidea:** condiscipulo
- **Puxanta:** poderoso
- **Entzutetsua:** conocido
- **Saila:** Departamento



# Seminarista, pilotari profesionala, soziologoa (II)

## LANBIDEZ SOZIOLOGOA, JUBILATU ARTIO

### Eta zure lanaz? Soziologo lanaz, zer diozu?

Ba, Donostian pilotari nintzela, lanpostu bateko deialdi batera aurkeztu nintzen. SIADECO zen enpresa hori (Orain ere enpresa entzutetsua dena Euskal Herrian) Enpresa horretan hiru urtez aritu nintzen. Niretako oso inportantea izan zen, oso inportantea nire lanean ikasteko, eskarmentua hartzeko. Gehiago oraindik, enpresa horretako jabeak European barna ibilitakoak ziren, ikasketak egiten eta lan batzuetan trebatzen, ordurako oso jende famatua zen.

### Eta Donostiatik Iruñera. Siadecok ez zuen hemen lantokirik?

Nik pilota utzi eta Iruñera etortzea erabaki nuen. Orduan Siadeco ibili zen Iruñean delegazio bat irekitzekotan, baina proiektu hori ez zen aurrera atera.

Eta hemen lan bila, zenbait jende ezagunekin hitz egin nuen, batez ere ikasketen munduan aipagarriak zirenak: Gabriel Hualde, Jose Mari Satrustegi... eta abarrekin. Eta horrela **Adingabeen Babes Auzitegian** lan bat egin behar izan nuen.

Ondoren, **Bartolome de Carranza** fundazioan aritu nintzen eta denbora berean eskolak ematen **Gizartelan eskolan**.

Gero Udaletxean sartu nintzen. Bertan aritu nintzen 1983ko martxotik 2016a artio eta, jakina, hainbeste denboran, sail diferenteetan. Azkenean, sail autonomoa izan zen gurea, Soziologia Departamentua. Bertan zuzendari izan naiz jubilatuta artio.

Dena dela, lan eta arlo diferenteetan aritu naiz, zenbait lan espezifikotan, eta hala.

### Gainera, zenbait argitalpenetan ere kolaboratu duzu, soziologia kontuetan eta.

Bai, bai, Bartolome de Carranza fundazioan zenbait argitalpen egin genituen, **Iruñerriko gazte bandez** esate baterako. Gero, gu izan ginen, Gabriel Hualde eta beste lan-ekipo bat, Espainian gazte aferaz egiten zen lehen lana aurrera atera genuenak. Azken lana egin nuena *Historia de Pamplona* deritzanarako izan da, **Pamplona 1975-2016**, soziologikoki izan diren aldaketek. Pamielarekin atera genuen orain berriki.

*Beste zenbait liburutan egindako kolaborazioak ez ditugu aipatu, baina jarri gabe ezin utzi UNED-en 30 urtez izan dela irakasle tutorea.*

*Luze joan zaigu baina gai asko utzi ditugu leku faltaz. Esate baterako Olagueko **Perikoneko** alaba, Delia Iraizotz Antzizarrez, bere andrea denaz; edo bere umeez. Bere afizioak ere bazter utzi ditugu azkenean, ehiza eta abar. Beste aldi batean beharko du.*



▲ Hondartzan. Eskuinean, kokoriko. Preukoan. Eguberritan.



## Maialen Etxenike, Olagueko ile-apaintzailea

Duela bi urte etorri zen Maialen Etxenike baztandarra bere familiarekin Olaguera (Anue) bizitzera, Atarrabiatik. Naturatik hurbilago egoteko helburuarekin eta herri bateko lasaitasunaren bila etorri ziren, eta pozik adierazi digu, topatu ere, topatu dutela bilatzen zutena. Herrian bertan, etxean irekitako gunean du ileapaindegia Etxenikek.

### Hasieratik argi al zenuen herrian bizitzeaz gain lan ere bertan egin nahi zenuela?

Ez, ez nuen argi. Egia da hona etorri aurretik, bederatzi urtez ile-apaindegia martxan izan nuela Burlatan, pandemia aurretik itxi nuen hura. Izan ere, alaba sortu zen garai hartan, eta bera eta semea hezi nahi nituen, haiekin egoteko denbora hartu. Baina, ohartu nintzen, parkera ateratzen ginenean, jendaren ileari begira egoten nintzela beti. Hurbilean nituenei aholkuak ematen aritzen nintzen, eta haiek animatu ninduten ile-apaindegia irekitzera. Orduan, pentsatzen jarri nintzen, ea nola moldatu ote nintekeen, lana eta haurrak uztartzeko...

### Eta, nola moldatu zinen?

Tira, hasieran lokal bila hasi nintzen Ultzama ingurutik, zeren, pandemia garaian etxez etxe ile-apaintzaile lanetan aritu banintzen ere, hemen ikusten nuen leku fisiko baten beharra nuela funtzionatzeko. Azkenean, ohartu nintzen, etxean bertan ile-apaindegia jartzea aukera on bat izan zitekeela. Udaletxera joan nintzen, eta han ere gauzak oso erraz jarri zizkidaten.

“Etxe ondoan zerbitzuak izatea eroso da, eta herriari bizitza ematen dio”



▲ Maialen Etxenike

### Zer moduzkoa izan da herritarren erantzuna?

Arras ona izaten ari da erantzuna. Iruditzen zait herriko jendeak bertako komertzioak zaintzen dituela, saiatzen dela ahal den heinean behintzat horietara joaten. Azkenean, arras eroso da herri batean, bertatik bertara izatea zerbitzuak, Iruñera joateko beharrik izan gabe. Eta, herriari bizia ere ematen dio. Pentsa, hemen, Olaguen bertan, badugu okindegia, gazta denda, Ultzaman bada supermerkatua... ez dugu zertan mugitu herriko bizimoduarekin segitu nahi badugu.

### Zer du ona herri batean lan egiteak?

Tratua hurbilekoagoa izaten da herrietan. Batzuetan, jendearen beharretara moldatzen naiz ni gauzak errazteko, baina, modu berean, jendea ere nire beharretara egokitzeke prest dago beti. Giroa familiakoa da, hurbilekoa.

### ESKAINZA

Ile-mozketa, orraztea, kolorea ematea, metxak, keratina (lisatzeko tratamendua), ile-bilduak, presoterapia, etab.

**Helbidea:** Ezkati kalea, 7

**Telefonoa:** 630 18 08 05



## Geldialdi luze baten ondoren, itzuli da

Maiatzaren 27an Basaburuko BTT proba izanen da. 2020an egin behar zen hamahirugarren edizioa, baina izurriteak bertan behera uztera behartu zituen antolatzaileak, eta ondoren ez da berriz egin. Aurten, ordea, bai, indartsu itzuliko da.

Beste ekimen eta jarduera batzuk bezala, izurriteak bete betean harrapatu zuen Basaburuko XIII. BTTa, 2020an. Mendi bizikletaren maitaleendako derrigorrezko hitzordua bihurtua zen ekimena bertan behera utzi behar izan zen, eta ondorengo urte arraroetan ez da hainbeste jende biltzen duen kirol proba antolatzeko girorik izan. Horrela, lau urte pasa dira. Baina, aurten bai, ekimena berreskuratuko dute.

Maiatzaren 27an izanen da, eta gogo handiak badirela sumatzen da, lehenengo egunetan jende mordoak eman baitzuen izena. Manu Alvarez, MTB Basaburua taldeko eta antolakuntzako kidea: "Gogoak, bai gure aldetik antolatzeko, baina baita partaideen aldetik ere. Hasieran behintzat kolpe handia izan zen izen-emateen aldetik. Orain lasaitu da pixka bat, baina hasieran, bai. Orain arte 89 inskripzio ditugu

(martxoaren 23an) eta ez dago plaza mugarik, zenbat eta gehiago izan hobeto, moldatuko gara!".

### Aurtengo ibilbidea

Beti bezala, ibilbidea sorpresa izanen da, ez da publiko egingen. Baina, azkeneko urteetan bezala, bi ibilbide izanen direla badakigu, bata gogorragoa, eta bestea leunagoa. Manu Alvarez: "Bi ibilbide egingo dira, bata 22 kilometrokoa eta bestea 38koa. Helburua, Basaburuko bailaratik ibiltzea da, ahal den gehiena menditik. Bidexka ugari eta baso bideak aprobetxatzen dira, eta horietatik barna gure bailara ezagutu dezakegu sakontasun handiagoan".

Aurten, zabalduko bidexka berriak aprobetxatuz, ibilbide entretenigarria izanen dela uste du Alvarezk: "Orain arte pistak eta asfalto gehiago hartzen zituen ibilbidea izaten zen, baina, orain, hainbat bidexka irekitzen eta garbitzen ari gara, eta hortik pasatzeko aprobetxatuko dugu. Nik uste dut ibilbidea entretenigarriagoa izanen dela. Azkenean, bidexkak teknikoki ez dira oso zailak, eta partaide guztientzat edo gehienentzat oso dibertigarriak izanen dira".



MTB Basaburuak deitutako azkeneko auzolana, martxoaren 19an. Bidexka berriak zabaltzen ari dira etengabe



## 16 urte

Basaburuko BTT probak hamasei urte beteko ditu aurten. Arrarasko Luis Mariezkurrena Unanuak ongi gogoratzen du hasiera: "Udalarekin hitz egin genuen eta hasi ginen prestatzen. Helburua jendeak kirola egitea eta Basaburua ezagutzea zen, baina ez genekien oso ongi nondik hasi, baimenak, anbulantziak, seguruak... gauza asko behar dira".

“**Manu Alvarez:**  
**Bidexkak teknikoki ez dira oso zailak, eta partaide gehienentzat oso dibertigarriak izanen dira**”



▲ Basaburuko BTT Facebook kontutik



Basaburuko BTT FB ▲

Eta oztopo burokratikoek beste batzuk ere gehitu zitzaizkien: "Lehenbiziko urte horretan hiru egunetan euria gelditu gabe egin zuen! Bezperan, azkeneko momentuan, 12 kilometro aldatu behar izan genituen! 2019an, egin zen azkeneko urtean, gauza bera gertatu zen. Leku batzuetatik pasatzea ez zen posible, eta ibilbidea moztu behar izan genuen, inprobisatzen!" Manu Alvarezek ere gogoan du: " Bidexketatik erreka forman jaisten zen ura. Dibertigarria izan zen baina gogorra ere bai".

Udalari eta boluntarioei eskerrak eman nahi dizkie Mariezkurrenak: "Beren laguntzarik gabe ez zen posible izanen". Alvarezek laguntzen duten enpresei ere eskerrak ematen dizkio: "Zozketako sari franko izanen dira, eta partaide bakoitzeko material polita izanen dugu. Beldurra etxean utzi eta animatu apuntatzera. Ongi pasatzeko eguna izan dadila".

### Izen ematea:

- [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com), maiatzaren 21era arte
- Egunean bertan, Jauntsaratsen, 8:00etatik 9:00ak arte

### MTB Basaburua


Bidexkak garbitzen eta prestatzen ibiltzen zen Berueteke talde batek MTB Basaburua sortu du. 2018tik ibili dira lan horretan, baina, ofizialki, 2021ean sortu zuten taldea. Tartean da Manu Alvarez eta haien eragina nabarmena izanen da Basaburuko BTTan. Ibilbidean, aipatu bidexka berriekin, batez ere.

"Orain Aizarotzen ari gara buru-belarri. Bizikleta parke bat prestatzen ari gara. Horren helburua ikastaroak ematea izango da. BTTa hortik pasatzeko aprobeztatuko dugu, jendeak bizikleta parke hori ze itxura hartzen ari den ikus dezan".



Basaburua  
MTB  
taldearen  
webgunea





### *Bi telesail eta dokumental bat*

Oraingo honetan, dokumentala eta bi telesail. Frantsesa lehenengoa, britaniarrak bi telesailak. Azkenekoak, herrialde beretik baina garai eta gai oso ezberdinekoak. Gorde izenak!

### **À Voix haute: La force de la parole – A viva voz (2016): Filmin / Youtube (frantsesez)**

Stéphane de Freitasek eta Ladj Lyk idatzi eta zuzendutako dokumentala dugu hau, benetako gertakizun bat berregiten duena.

Noraino iritsi daiteke hitzak duen indarra? Zerk du garrantzia? Hitzak, esanahiak eta argumentuak? Ala diskurtso bat integratzeko eta ongi artikulatzeko gaitasunak?

Paris 8 Seine-Sant-Denis Unibertsitatea Ille de Franceko auzorik txiroenetako batetik hurbilen dagoen fakultatea da. Eta bertara gerturatzeko dira egoera sozioekonomiko behartsuenetako ikaslerik finenak. Fakultateak urtero antolatzen du Eloquentia lehiaketa, haien ikasleen artean hizlari onena


zein den neurtzeko. Lehiaketa aurreko sei asteetan ikastaro bat antolatzen dute, ikasleak oratoriaren arlo ezberdinetan trebatzeko. Bertan izena eman duten ikasleek hitzarekiko duten harremanean sakondu nahi dute, hitzak indartsu egingo dituelakoan eta bere burua defendatzen ikasiko dutelakoan, ala norbera hobeki ezagutzen lagunduko dielakoan, mundua konkistatuko dutelakoan, edota aurrean duten horrengana iritsi eta hunkituko dutelakoan...

Sei aste horiek kontatuko dizkigu dokumentalak, eta ikasleen bizitza pertsonalak ezagutzen joanen gara. Bakoitzak lehiaketa honetan izena emateko izan duen benetako arrazoa pixkanaka azalduz joango diren heinean. Denbora honetan egingen dituzten erlazioek, aurrera eta atzera pausuek, azken batean, ikaspenek, lehiaketa egunera arte eramanen gaituzte. Eta bertan gertatuko da magia.



◀ Entzun Spoiler Alert Esan Erran irratiko Egun Ero magazinean





## Zafarrancho en Cambridge (1987): Filmin / Youtube

Denboraldi bakarreko telesail britainiarra da, Tom Sharpen izen bereko eleberrian oinarrituta, eta bere garaian bi BAFTA sari eraman zituen.

Telesailak Cambridgeko ermandade txit goren baten istorioa kontatzen du: Porterhouse delakoarena. Klasismoa da nagusi ermandadearen izkina guztietan. Bertako atezainak, Skullion jaunak, etsipenez eta leialtasun osoz jasaten ditu ikasleen mespretxu eta aginduak, sinistuta baitago hori dela gizarte zentzudun batek funtzionatzeko duen modu bakarra.

Orain arte, Porterhouseko zuzendariak beti bere oinordekoa izendatu izan du hil baino lehen. Ermandadean, gainera, bada gaixotasun endemiko bat,

Porterhouse Blue izenez ezagutzen dena, bertan antolatzen dituzten festa eta afari oparoekin lotura zuzena duena: hainbeste haragi, gantz, ardo, azukre jan eta edan eta gero, azala urdintzen hasten zaie, eta hala hiltzen dira tradizionalki Porterhouseko zuzendariak. Eta hala behar du gainera, tradizioak aginduta.

Baina azken zuzendariak ez du oinordekorik izendatu, azken betekadan hunkituegi baitzegoen horretan pentsatzeko eta, gainera, ahoa beteta duzunean, zaila da hitz egitea. Estatutuetan arakatu ostean aurkituko dute beste prozedura bat hurrengo zuzendaria izendatzeko.

Baina zuzendari berriak ez du begi onez ikusiko tradizio hauetako asko: emakumeei ere tokia egin

nahi die ermandadean, afari eta festak mugatu nahi ditu eta ikasle ziztrin baino boteretsuei bakarrik ez, ikasle onei ere tokia egin nahi die... Skullion atezainak ez du hau onartuko, eta bere eskutan dagoen guztia egiten saiatuko da gauzak dauden bezala eta egon behar duten bezala gera daitezen.



## We are Lady Parts (2021) Filmin

Nida Manzoor idatzi eta zuzendutako sei kapituluko telesail britainiar honek galdera bat egiten digu: erlijioa eta punka bateragarriak al dira? Bost neska hauek baietz erakutsiko digute. Hasiera batean, jatorri musulmaneko lau neskek osatzen dute Lady Parts taldea. Gustura daude haien artean: beti izan dira bitxo arraroak haien familian edo lagun artean, baina elkarrekin oreka aurkitu dute. Momentu jakin batean konturatuko



dira haien musikari beste zerbait falta zaiola: gitarrajotzaile berria behar dute. Eta casting bat antolatuko dute abeslariak lan egiten duen halal harategian bertan. Eta horrela aurkituko dute Amina: familia musulman baina guraso liberalak dituen gaztea, ahalik eta lasterren doktoretza bukatu nahi duena ezkondu ahal izateko.

Kontua da, neska berezi hauekin musika egiten duen bitartean benetan ongi pasatzen duela Aminak; izan ere, benetako neska bereziak dira hauek: Saira, erlazio serio batean dagoela onartu nahi ez duen harakina; Bisma, Komiki feministak diseinatzen eta merkatuan saltzen saiatzen den ama; Ayesha, influencerrekiko gorrotoak haiekin maitemintzen eragozten ez dion bateriajotzailea eta, azkenik, Taz, niqaba burutik

kendu gabe sexu denda batean aritzen den managerra.

Telesailak berez, istorioarengatik bakarrik, benetan merezi duen arren, badu plus bat: kantuak. Letra kañero bezain umoretsuak dituzte. Hona hemen haien lelo bat: "zer daramazu hor azpian, zer ari zara ezkututzen, bizirik da, bizirik da, Voldemort da eta nire hiyabaren azpian daramat". Tradizioaren inguruan ironia egiteko batere arazorik ez dute, baina, batez ere ezjakintasunari eta beldurrari barre egiten diote.

Neska hauek kontraesantetan surfeatzen benetan abilak dira; izan ere, ez dute ezeri uko egiteko inolako intenziorik. Ezta beharrik ere. Beharbada, besteok gara aurreiritzien kontua gehixeago landu beharko genukeenak.



## Bost mila karaktereko palindromo bat

Apirilaren 23an liburuaren eguna ospatzen da mundu guztian. Egun horretan, 1616an, literatura unibertsalaren bi idazle handi, handienak ez badira, Miguel de Cervantes eta Willian Shakespea-re, hil ziren... edo hil egin omen ziren, egia esan, garai hartan Ingalaterrak eta Espainiak egutegi desberdinak erabiltzen zituztelako (egutegi juliotarra Ingaleterran eta gregoriarra Espainian). Horren arabera, Shakespeare Cervantes baino hamar egun beranduago zendu zen... Baina, tira, xehetasun hauek ez ditzala efemerideak izorratu!

Kontua da, apirilean zehar guk ere ospatuko dugula liburuaren eguna, edo liburuaren hila, eta ostiral kulturalen hiru jarduerak literaturarekin lotuta daudela.

### Zer da Nahia?

Hasteko, apirilaren 16an Sandra Iraizozek (Utzamako idazlea) eta Juan Frommknechtek aurkeztuko dute lau eskutara idatzi duten liburua: "Nahia". Eta **zer da Nahia?** "Nahia" da desiorik sakonena, egunero jaikitzen bultzatzen gaituena; gure irrika. Baina, ba al dakigu gaur egun zer den hori? Baimentzen al diogu geure buruari amesten? Egileak **Nahia** idaztera bultzatu zituzten bizitzako alderdi horiei eta beste batzuei buruz hitz egingo digu".


Hitzordua 19:00etan da Larraintzarko Gizarte Etxean.

### AMETSEN AMETSEKIN

Hurrengo ostiralean, euskal kulturaren erreferente bat etorriko da gurera: Amets Arzallusek, bertsolari ospetsuak bere lehen eleberria aurkeztuko digu, "Miñan" goraipatu eta hunkigarria. Bertan, Ibrahima Balderen eskutik, bere bizitza kontatzen zaigu: Ibrahima kamioi batean zebilen aprendiz Ginean, eta egun batean amak deitu zuen anaia txikia falta zela esanez. Haren bila abiatu zen Ibrahima Afrikatik Europarako bidean. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu... Hori da liburuaren haria. Eta bidaltzen digun mezua, berriz, nola Mediterraneoan zeharkatzen dutenen deshumanizatzea ezinbestekoa den haien heriotzen, kanporatzeen, ilegalizatutako bizitzen gaineko ezaxola zabaltzeko. Baina bizitza horietako bakoitza bakarra da eta, beraz, unibertsala. Eta kontatzeak Ametsek eta Ibrahimak egin duten bezala hori azpimarratzen du.

Apirilaren 21ean, 17:30ean (adi!), izango da kasu honetan liburu aurkezpena, hau ere Gizarte Etxean.





## SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI!

Eta bukatzeko, eta gorenean bukatzeko, hurrengo ostiralean gurekin egongo da, nor, eta Joseba Sarrionandia. Zer esan Joseba Sarrionandiaz, ez du aurkezpenik behar. Ezin da euskal literaturari buruz hitz egin Sarrionandia aipatu gabe. Pott banda osatzen hasi zenetik gaur arte, gure letrei egin dien ekarpena funtsezkoa eta emankorra izan da, ia urtero izenburu batekin: “Lagun izoztua” “Moroak gara behelaino artean?” “Ni ez naiz hemengoa”, “Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak”, “Marginalia”, “Gartzelako poemak”, “Kolosala izango da”... Hitzaldi honetan egileak bere bizitza eta literatura uztartzen dituen ibilbide bat eskainiko digu. **Bizitzan artekatutako liburuak**, du izenburua Sarrionandiaren hitzaldiak, hain zuzen ere.

## Akordatzan naiz

Horren harira -literatura eta bizitza-, eta kolaborazioa bukatzeko, egilearen liburu bat gomendatu nahi dugu: **Akordatzan**, oroimen bilduma bat. Hauek bezalakoak oroitzapenak irakur daitezke bertan:

“Etxean ez zegoen telebistarik. Domeka arratsaldetan Etxeberrira joaten ginela akordatzan naiz telebisioa ikusteko”

“Ezkutaketan jolasten ginela akordatzan naiz. Bat, bi, hiru, lau... Orduan ez genekien gero bizitza osoa horrexetan, ezkutatzen, eman beharko genuela”.

**Akordatzan naiz...** Mantra hori agertzen da oroimen guztietan.

Sarrionandiak, egia esan, ez du mantra hau asmatu, beste idazle batzuek lehenago erabili zuten teknika literarioa jasotzen du, hala nola Georges Perec frantsesak, bere Je me souviens liburuan edo Joe Brainard estatubatuarrek. Brainard izan zen erabili zuen lehena. Brainardek, adibidez, bere **Akordatzan** naiz 1970ean idatzi

zuen, eta bertan, besteak beste, John Kennedy hil zuten egunaz gogoratzen da, edo Marilyn hil zenekoaz, edo izozki baten ondoren edalontzi bete ur hotz hartzeak ematen duen gustuaz, edo bere lehen erekzioekin gaixotasun izugarri bat zuela uste zuenekoaz... Eta horrela, ehun eta berrogeita hamar orrialde zoragarritan. Baina, beharbada, **Akordatzan naiz** ezagunena Je me souviens da, zazpi urte geroago, Brainarden arrastoari jarraiki, Georges Perecek idatziko zuena.

Georges Perec OULIPO mugimenduko kide izan zen, hizkuntzarekin, literaturarekin eta generoekin esperimentatzen eta jolasten zuen mugimendua, matematika, xakea edo zientziaren baliabideak aplikatuz. Adibidez, munduko palindromorik luzeenaren egilea da (palindromoa alderantziz berdin irakurtzen den esaldia da; gaztelaniaz ezagunena “Dábale arroz a la zorra el abad” edo beste batzuk “Yo hago yoga hoy” edo “No maree, Ramón”. Euskaraz ere badira batzuk, adibidez “Ai ama, ari da Amaia” edo “Inoren ero ni” (hau gainera rock talde baten izena da).

Kontua da Perecek bost mila karaktereko palindromo bat idatzi zuela, hau da, gutxi gorabehera bi orrialdeko luzerakoa. Horrelako jokuak egiten zituen. Perecek **La disparition** izeneko nobela bat ere idatzi zuen, non e letra ez den agertzen; eta hori nahikoa iruditu ez zitzaionez, **Les revenentes** ere idatzi zuen, non bokal hori bakarrik erabiltzen duen, e letra.

Hori guztia Sarrionandiaren Akordatzan liburu hura gogoratzeko eta, azken batean, Sarrionandia gurekin egongo dela gogorarazteko, kasu honetan (arreta jarri ordutegiari) 18: 00etan, apirilaren 28an, egutegi gregoriarrean.

 **Patxi Irurzun,**  
Ultzamako liburuzaina





# 2023ko otsaila

## 2023ko otsailean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

### Jaiotzak:

#### IMOTZ Zarrantz

Enara laben Zubieta, Zarrantzko **Etxeberriko bordan** jaioa otsailaren 8an. Juan Mari eta Elenaren alaba

“ Zorionak gurasoei ”



▲ Juan Mari eta Elena, zoriontsu hirugarrenarekin

### Ezkontzak:

#### IMOTZ Etxaleku

Ion Agirrezabal Moreno, Arakilgo Iriberrikoa eta Lorea Beloki Bes Etxalekuko **Gartxenekoa**, otsailaren 26an ezkondu ziren.

“ Mila zorion ezkonberriei ”

### Heriotzak:

#### BASABURUA Beruete

Jose Maria Indakoetxea Arangoa, **Itxoneko** nagusia, otsailaren 11an hil zen, 74 urtetan.

#### Auza

Maria Pilar Altsua Toral, **Eskoletxeko** alaba, otsailaren 10ean hil zen, 87 urtetan.

“ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna. ”

#### ULTZAMA Alkotz

Jose Miguel Oiartzun Balda, **Pintoneko** nagusia, otsailaren 23an hil zen, 89 urtetan.



▲ Maria Pilar

#### Gerendian

Julen Domeka Renedo Beuntza, otsailaren 5ean hil zen, 27 urtetan.



▲ Julen Domeka Renedo

#### Eltzaburu

Maria Alonso Alvarez, otsailaren 2an hil zen, 98 urtetan.



▲ Maria Alonso



▲ Joxe Miel Oiartzun

#### OHARRA

Irakurle, zure familiako jaiotza, ezkontza edo heriotzaren bat Pulunpen jarri ez badugu, deiiezaguzu lehenbailehen hurrengo Pulunpen zuzendu dezagun.

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK  
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

**KARRIKOLAR**  
ELEKTRIZITATEA



**629 31 53 32 · 722 766 835**

LIZASO · [karricolaregoitz@gmail.com](mailto:karricolaregoitz@gmail.com)

**GOTELET-A  
KENTZEA**

**FATXADAK  
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA  
(IMPERMEABILIZACIONES)**

**DAVID ELIZONDO PINTURAK**  
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA  
ETA  
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA  
KONPROMEZURIK GABE**

**678623866**

ZIAURRITZ · [argapin@hotmail.com](mailto:argapin@hotmail.com)



esan erran irratia 1998-2023



25 URTE

ultzama aldeko uhinak astintzen